

**DURANGOKO AZOKA 2019**

2019-12-05 Durango 05-12-2019

Lehendakariaren hitzaldia – Discurso del Lehendakari

Herri agintariok, herri ordezkariok; Hego Euskaditik etorritako ordezkari guztiok; beraz, Nafarroatatik etorritakoa; sailburua, ongietorria; Durangoko Azoka-ren arduradun eta kideok; beraz, Gerediaga Elkartearen presidente eta kideok batez ere, gaurko honetan, arratsalde on.

1965ean, lehenengo Liburu eta Disko Azoka antolatu zenean, **dena zegoen egiteko**. Artean, lau urte falta ziren Saizarbitoriak 'Egunero Hasten Delako' argitaratzeko; bederatzi Mikel Laboak 'Bat hiru' aurkezteko; hamaika urte, Itoiz taldea sortzeko. Artean, besteak beste, hiru urte falta ziren euskara batua sortzeko.

Dena zegoen egiteko; eta nekez imajina zitekeen zer etorriko zen. Orduan, 15 stand bakarrik jarri ziren: 12, liburuak jasotzeko; 2, diskoetarako eta azken bat informaziorako. Euskal kulturaren plaza eraikitzeaz zegoen.

Harrezkeroztik, etorri diren 54 edizioek ematen duten perspektibarekin, **Gerediaga aitzindaria izan zela esan dezakegu**. Aitzindaritzaren horri esker, bidea errazago izan DA euskal kulturarentzat. Urte hauetan zehar euskal kulturaren plaza nagusia eraiki DA. Plaza zabala eta handia DA. Irekia eta anitza. Plaza hau gure kulturaren birika bilakatu DA. **Sorkuntza hauspotzen duen bizigarria**.

Aurten, lehenengo edizioetan bezala, plaza hori gune eroso eta abegikorra izango da proposamen gazte eta berrientzat. Era berean, euskal kulturaren plazak badu ohorezko leku bat aurreko sortzaileentzat. Bidea ireki zuten aitzindari horientzat.

Aurten, hiru belaunaldi ezberdinetako idazleak elkartuko dira eta, horrekin batera, Durangoko doinuak inoiz baino anitzagoak izango dira.

Kirmen Uribe-k dio Kulturak jantzen duela gure herria. Durangori esker, herri jantziagoa eraiki dugu, sortzaileagoa, anitzagoa ere bai. Herri sortzaile eta jantzia nahi dugu. Bere dimentsioan eta neurrian, aitzindari eta erreferente.

Gaur, orain mende erdi bat ez bezala, dena ez dago egiteko; **baina asko dugu egiteko**. Gaur, denok dugu argi kultura dela gure herriaren oinarria eta gure herria janzten duena. Gaur, ere, badakigu Kulturak behar-beharrezkoa duela ikusgarritasuna; **sortzaileek behar-beharrezko dituztela erakusleihoak**.

Zorionak plaza hau eraikitzen lagundu duzuen guztioi. Eskerrik asko plaza hau osatzen, zaintzen eta hazten laguntzen duzuen guztioi.

Euskal kulturak ezinbestekoa du plaza handia. **Betikoa eta berria**. Plaza hori Durangoko Azoka DA.

Eskerrik asko.